



Hezkuntza publikoan lan baldintzak hobetu. Hemen eta orain erabakita.

Nahikoa ez den akordio proposamenaren aurrean irakasleak berriro grebara

Hezkuntza Saila idatzizko proposamena mahai gainean jartzera behartu duten arren, greba dinamikarekin aurrera egitea besterik ez dute

Urtarriletik apirilera bitartean %90eko ordezkaritza duten STEILAS, LAB, ELA eta CCOO sindikatuek deituta bederatzigarren greba egun egin dituzte irakasleek. Pasa den asteko azken bileran Hezkuntza Sailak negoziatzaileekin egutegia baino ez zieten aurkeztu.

Atzo arratsaldean helarazi zien proposamen bat. Honek, aldarrikatutako edukiei ez die erantzun egokirik ematen oraindik. Izan ere, eduki, zehaztapen eta bermeak falta direla adierazi dute. Eta Hezkuntza Saila honen jakitun izan arren, ultimatum gisa planteatu du negoziatzaileekin aukera baztertuz. Biharko hitzorduak sinadura bakarrik dauka helburu. Horren aurrean **greba ziklo hauen deitzaileak diren lau sindikatuek ez dutela sinatuko jakinarazi dute.**

Beraz, orain arte egindako **greba eta mobilizazio arrakastatsuek segida izango dute beste 5 greba egunekin maiatzaren 12, 13, 14, 15 eta 16an.**

Indarrean dagoen irakasleen lan-akordioa 2010ekoa da, hortaz, 15 urte luze daramatza Eusko Jaurlaritza hura berriro gabe. Egindako grebetan, langileek argi eta garbi adierazi diote Hezkuntza Sailari **hitzarmena orain eta hemen negoziatzeko beharra**, eta Hezkuntza Sailak negoziatzeko atea zabalik duela saldu badu ere, errealitatea bestelakoa izan da: jarrera itxia, eszenifikazioa, edukirik gabeko bilerak ...

Gainera, grebak desaktibatzeko xantaiak eta beste sektoreetan egin ez duten bezala, **ez dituzte negoziatzeko aukerak aprobetxatu eta blokeoa luzatzen dabilta.** Hitz eta asmo politetatik harago, edukiak, zehaztapena eta konprezioak behar dituzte sindikatuek.

Greba ziklo honetan, **irakasleek, kalean adierazitako indarrarekin, oso mezu argiak helarazi dizkiote Hezkuntza Sailari:**

gero eta handiagoak diren lan-zamak arintzeko neurri zehatzak adostea, erretiroa hartzeko baldintzak hobetzea eta plantillen gazteberritze plana garatzea, galdutako erosahalmena berreskuratzea eta jaiotza-tasaren jaitsierak aprobetxatuz aldebakarrez erabakitzen ari diren ikastetxe publikoen fusio eta itxieren aurrean enplegu publikoa bermatu eta lanpostuak egonkortzea.


Era berean, Hezkuntza publikoko sistema osoa euskaldunduko duen hezkuntza politikak abiaraztea, langileon lan-osasuna zaindu eta kalitatezko berdintasun eta hezkidetzaren plan egonkorra garatu ahal izateko baliabideak jartzea eskatzen dugu, baita azken urteetan inposatutako atzerapausoak kentzea ere.

Hezkuntza Sailak urteak daramatza aldebakarrez neurriak inposatzen, eta harrokeria horrek ekarri ditu egoera honetara. Irakasleen lan baldintzak negoziatzeko garaia da. Hala, Hezkuntza Sailari eduki, zehaztapen eta bermeak dituzten proposamenak mahaiagaineratzeko exijitzen diote, inolako baldintzarik gabe.

Hezkuntza publikoa indartzeko ezinbestekoa da inbertsioa handitzea, lan baldintzak hobetzea eta eskola publikoa baliabideez hornitzea. **Adierazitako aldarrikapenak lortzeko egiazko negoziatzaileak gauzatzea dute helburu,** eta argi dute langileen mobilizazioekin batera hezkuntza publikoa erdigunean jartzea eta lan baldintzak hobetzea lortuko dutela.

Denok grebara! Denok kalera!





Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.

Decididas aquí y ahora.

El profesorado volverá a la huelga ante una propuesta insuficiente

Aunque han obligado al Departamento de Educación a poner sobre la mesa una propuesta escrita, seguirán adelante con la dinámica de huelga

El profesorado ha secundado nueve jornadas de huelga entre enero y abril, convocadas por los sindicatos STEILAS, LAB, ELA y CCOO, con una representación del 90%. En la última reunión de la semana pasada el Departamento de Educación sólo les presentó un calendario de negociación. **Ayer por la tarde les hizo llegar una propuesta**, pero sigue sin dar una respuesta adecuada a los contenidos reivindicados. De hecho, señalan que falta contenido, concreción y garantías. Y aunque el Departamento de Educación es consciente de ello, lo plantea como un ultimátum descartando la posibilidad de negociación. La cita de mañana sólo tiene como objetivo la firma. Ante ello, **los cuatro sindicatos convocantes de estos ciclos de huelga han anunciado que no lo firmarán.**

Por lo tanto, las huelgas y movilizaciones exitosas realizadas hasta ahora tendrán **continuidad con otras 5 jornadas de huelga los días 12, 13, 14, 15 y 16 de mayo.**

El acuerdo regulador del profesorado vigente data de 2010, por lo que el Gobierno Vasco lleva 15 años sin renovarlo. En las huelgas realizadas, los trabajadores y trabajadoras hemos trasladado claramente al Departamento de Educación la **necesidad de negociar el acuerdo aquí y ahora.** Aunque el Departamento de Educación ha declarado que tiene la puerta abierta a la negociación, la realidad ha sido otra: actitud intransigente, escenificación, reuniones sin contenido...

Además, al contrario que en otros sectores han utilizado el chantaje para desactivar las huelgas y **no han aprovechado las oportunidades para negociar prolongando el bloqueo.** Más allá de propósitos y palabras bonitas, los sindicatos exigen contenidos y concreciones.

En este ciclo de huelgas, **el profesorado, con la fuerza expresada en la calle, han lanzado mensajes muy claros al Departamento de Educación:** acordar medidas concretas para aliviar las cargas laborales crecientes, mejorar las condiciones de jubilación y desarrollar el plan de rejuvenecimiento de las plantillas, recuperar el poder adquisitivo perdido y garantizar el empleo público y estabilizar los puestos de trabajo ante las fusiones y cierres de centros públicos que se están decidiendo unilateralmente, aprovechando las bajadas de natalidad.

Asimismo, pedimos que se pongan en marcha políticas educativas que euskaldunicen todo el sistema público de educación, que se preserve la salud laboral de los trabajadores y trabajadoras, y que se pongan los medios para poder desarrollar planes estables de igualdad y coeducación de calidad, así como que se eliminen los recortes impuestos en los últimos años.

El Departamento de Educación lleva años imponiendo unilateralmente medidas y esa arrogancia es la que les ha llevado a esta situación. Es hora de negociar las condiciones laborales del profesorado. Así, los sindicatos exigen al Departamento de Educación que elabore propuestas con contenido, concreción y garantías sin ningún tipo de condicionante.

Para reforzar la educación pública es imprescindible aumentar la inversión, mejorar las condiciones laborales y dotar de recursos a la escuela pública. El objetivo es llevar a cabo **una negociación real para conseguir las reivindicaciones expresadas**, y tienen claro que junto con las movilizaciones de las personas trabajadoras conseguirán poner la educación pública en el centro y mejorar las condiciones laborales.

¡A la huelga! ¡A la calle!

